ZIZURKILGO UDALA

**OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA**

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2015eko maiatzaren 20, asteazkena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

**EGUNEKO AZTERGAIAK**

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2015.04.27).**

**2.- ZIZURKILGO HAURREN, NERABEEN ETA GAZTEEN SUSTAPEN SISTEMA GARATZEKO PLANTEAMENDUA ONARTZEA.**

**3.- "NESKA TXIRRINDULARIEN GIPUZKOAKO BIRA" ANTOLATZEKO, VILLABONA ETA ZIZURKILGO UDALEN ETA DANENA KIROL ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.**

**4.- ZUBIMUSU IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEARI BULANDEGI BIDEA 9 HELBIDEAN ONDARE-LURSAIL BAT ALOKATZEKO KONTRATUA ONARTZEA.**

**5.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2015/52tik 2015/71ra).**

**6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

Zizurkilen, 2015eko maiatzaren 15ean

Alkatea.

**CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO**

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **20 de Mayo de 2.015, miércoles**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

**ORDEN DEL DÍA**

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (27.04.2015).**

**2.- APROBACION DEL PLANTEAMIENTO PARA DESARROLLAR UN SISTEMA DE FOMENTO DE ACTIVIDADES PARA NIÑOS, ADOLESCENTES Y JOVENES DE ZIZURKIL.**

**3.- APROBACION DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE VILLABONA Y ZIZURKIL Y DANENA KIROL ELKARTEA, PARA LA ORGANIZACIÓN DE LA PRUEBA "NESKA TXIRRINDULARIEN GIPUZKOAKO BIRA".**

**4.- APROBACION DEL CONTRATO DE ARRENDAMIENTO DE FINCA PATRIMONIAL EN BULANDEGI BIDEA 9, EN FAVOR DE ZUBIMUSU IKASTOLA KOOPERATIVA ELKARTEA.**

**5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (52/2015 al 71/2015).**

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Zizurkil, 15 de Mayo de 2.015

El Alcalde.

ZIZURKILGO UDALA ALKATEGOA

Teodoro Hernandorena kalea, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 30 66 – Fax: 943 69 36 74 – e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

ZIZURKILGO UDALA

**2015eko MAIATZAREN 20an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION DE PLENO ORDINARIO CELEBRADA EL DIA 20 DE MAYO DE 2.015**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA / ALCALDE:**
José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**
Eva Usandizaga Mujika (Bildu)
Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)
Mª Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)
Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)
Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)
Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu).
Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**
José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabosteko maiatzaren hogeiko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Aritz Esnaola Arruti (Bildu) eta Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veinte de Mayo de dos mil quince, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Aritz Esnaola Arruti (Bildu) y Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.).

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da, eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2015.04.27).**

Udalbatzak, ahobatez, erabaki du 2015eko apirilaren 27an egindako Bilkuraren Akta onartzea.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (27.04.2015).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 27 de Abril de 2.015

**2.- ZIZURKILGO HAURREN, NERABEEN ETA GAZTEEN SUSTAPEN SISTEMA GARATZEKO PLANTEAMENDUA ONARTZEA.**

Mª Angeles Lazkano zinegotziak (EAJ-PNV) adierazi du horren dokumentu konplexu eta mamitsua aurkeztuta azalpen zehatz bat behar dela, eta, bere ustez, dokumentua idatzi duten teknikariek eman beharko zutela. Esate baterako, ez du garbi ulertzen dokumentuaren 13. orrialdean Tolosaldea Mankomunitatea eta Tolosaldea Garatzen agertzea, ez eta zer zerikusi duten erakunde horiek Zizurkili dagokion dokumentu batekin ere.

Aratz Alkorta zinegotziak (Bildu), Kirola eta Gazteriako Batzorde Informatzailearen arduradun gisa, azalpen guztiak eman dizkio, eta adierazi dio zer arrazoirengatik egin den dokumentu hori. Jakinarazi dio edozer garaitan eska diezaikeela planteamendu-dokumentuaren azalpen sakonago eta zehatzagoa dokumentua idatzi duten teknikariei.

Lazkano zinegotziak adierazi du emandako azalpenek ez dutela bete eta ez dituztela bere zalantzak argitu, eta, horregatik, bozketan abstenitu egingo dela.

Aurkeztutako dokumentua eta Kirola eta Gazteriako Batzorde Informatzailearen aldeko txostena ikusi ondoren, Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako dokumentua onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 7 (7 Bildurenak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).

Beraz Udalbatzak, botoen gehiengoarekin, "Zizurkilgo haurren, nerabeen eta gazteen sustapen sistema garatzeko planteamendua" dokumentua onartu du.

**2.- APROBACION DEL PLANTEAMIENTO PARA DESARROLLAR UN SISTEMA DE FOMENTO DE ACTIVIDADES PARA NIÑOS, ADOLESCENTES Y JOVENES DE ZIZURKIL.**

La concejal Mª Angeles Lazkano (E.A.J.-P.N.V.), manifiesta que un documento tan complejo y denso como el que se presenta necesita de una explicación detallada del mismo, que deberían haberla dado las técnicas redactoras del mismo. No tiene nada claro, por ejemplo, la mención que se hace en la página 13 del documento a la Mancomunidad de Tolosaldea y a Tolosaldea Garatzen y qué tienen que ver estas entidades en un documento que atañe a Zizurkil.

El concejal Aratz Alkorta (Bildu), como responsable de la Comisión Informativa de Deportes y Juventud, le da todas las explicaciones pertinentes y las razones por las que se ha elaborado este documento. Le comunica además que, en cualquier momento, puede solicitar a las técnicas redactoras una explicación más profunda y detallada del documento del Planteamiento.

La Concejal Lazkano manifiesta que las explicaciones dadas no le convencen y no aclaran sus dudas y que por ello se va a abstener en la votación.

Visto el documento presentado y el informe favorable de la Comisión Informativa de Deportes y Juventud, la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 7 (7 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar el documento del Planteamiento para desarrollar un sistema de fomento de actividades para niños, adolescentes y jóvenes de Zizurkil.

**3.- "NESKA TXIRRINDULARIEN GIPUZKOAKO BIRA" ANTOLATZEKO, VILLABONA ETA ZIZURKILGO UDALEN ETA DANENA KIROL ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.**

Aipatutako Hitzarmena aurkeztu da, onarpena jaso dezan.

Aurkeztutako dokumentua ikusi eta Kirola eta Gazteriako Batzorde Informatzailearen aldeko txostena kontuan hartu ondoren, Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako Mozioa onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (7 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz Udalbatzak, aho batez, gehiengo botoekin, "Neska Txirrindularien Gipuzkoako Bira" antolatzeko, Villabona eta Zizurkilgo Udalen eta Danena Kirol Elkartearen arteko lankidetza Hitzarmena onartzen du.

Hitzarmena Akta honen I Eranskinean jasota dago.

**3.- APROBACION DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE VILLABONA Y ZIZURKIL Y DANENA KIROL ELKARTEA, PARA LA ORGANIZACIÓN DE LA PRUEBA "NESKA TXIRRINDULARIEN GIPUZKOAKO BIRA".**

Se presenta para su aprobación el mencionado Convenio.

Visto el documento presentado y el informe favorable de la Comisión Informativa de Deportes y Juventud, la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (7 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el documento del Convenio de colaboración entre los Ayuntamientos de Villabona y Zizurkil y Danena Kirol Elkartea, para la organización de la prueba "Neska Txirrindularien Gipuzkoako Bira" y facultar al Señor Alcalde para su firma.

Este Convenio se recoge en el Anexo I de la presente Acta.

**4.- ZUBIMUSU IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEARI BULANDEGI BIDEA 9 HELBIDEAN ONDARE-LURSAIL BAT ALOKATZEKO KONTRATUA ONARTZEA.**

Aipatutako Kontratua aurkezten da.

Udalbatzarraren aho bateko erabakiarekin, Ikastolaren jarduera eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzen duen Hitzarmena ere aurkeztu da.

**4.- APROBACION DEL CONTRATO DE ARRENDAMIENTO DE FINCA PATRIMONIAL EN BULANDEGI BIDEA 9, EN FAVOR DE ZUBIMUSU IKASTOLA KOOPERATIVA ELKARTEA.**

Se presentan para su aprobación el mencionado Contrato.

Por decisión unánime del Pleno, también se presenta el Convenio para regular las condiciones para la aportación de subvenciones para financiar la actividad y los proyectos de dicha Ikastola.

Aurkeztutako dokumentuak ikusi dira eta Zerga Politika eta Sozioekonomiako Batzorde Informatzailearen aldeko txostena kontuan hartu ondoren, Udalbatzak bozketa egin du hauek onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (7 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udaltzazak, aho batez eta botoen gehiengoz, hau erabaki du:

Lehena.- Zubimusu Ikastola Kooperatiba Elkarteari Bulandegi bidea 9 helbidean ondare lursail bat alokatzeko Kontratua onartzea, eta Alkateari baimena ematea kontratua sinatzeko.

Kontratua Akta honen II Eranskinean jasota dago.

Bigarrena.- Zubimusu Ikastola Kooperatiba Elkartea eta Zizurkilgo Udalaren arteko Hitzarmena onartzea, Ikastolaren jarduera eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzen dituena, eta Alkateari baimena ematea hitzarmena sinatzeko.

Hitzarmena Akta honen III Eranskinean jasota dago.

**5.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2015/52tik 2015/71ra).**

52/2015etik 71/2015era zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2015eko apirilaren 24tik maiatzaren 12ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Vistos ambos documentos y el informe favorable emitido al respecto por la Comisión Informativa de Política de Impuestos y Socioeconomía, la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (7 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, y con el voto favorable de la mayoría absoluta, acuerda.

Primero.- Aprobar el documento del Contrato de arrendamiento de finca patrimonial en Bulandegi bidea 9, en favor de Zubimusu Ikastola Kooperativa Elkartea y facultar al Señor Alcalde para su firma.

Este Contrato se recoge en el Anexo II de la presente Acta.

Segundo.- Aprobar el Convenio entre el Ayuntamiento de Zizurkil y Zubimusu Ikastola Kooperativa Elkartea para regular las condiciones para la aportación de subvenciones para financiar la actividad y los proyectos de dicha Ikastola, y facultar al Señor Alcalde para su firma.

Este Convenio se recoge en el Anexo III de la presente Acta.

**5.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (52/2015 al 71/2015).**

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 52/2015 al 71/2015, firmados por la Alcaldía entre el 24 de Abril y el 12 de Mayo de 2.015, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

ZIZURKILGO UDALA

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeita hamar minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y treinta minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

**O.I.** **Vº Bº**

**ALKATEA.** **EL ALCALDE.**

ZIZURKILGO UDALA
ALKATEGOA

Teodoro Hernandorena kalea, 6 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 10 12 – Fax: 943 69 32 00 – e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 – 20159 Zizurkil – Tel: 943 69 30 66 – Fax: 943 69 36 74 – e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

Zizurkilgo Udala

# I ERANSKINA – ANEXO I

## VILLABONA ETA ZIZURKILGO UDALEN ETA DANENA KIROL ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA "NESKA TXIRRINDULARIEN GIPUZKOAKO BIRA" ANTOLATZEKO

Villabonan, 2015eko apirilaren 20an.

### BILDURIK

Galder Azkue Eizmendi, 44.148.129-C zk. NArekin, VILLABONAKO UDALeko Alkatea.
Jose Maria Luengo Zapirain, 72.434.065-G zk. NArekin, ZIZURKILGO UDALeko Alkatea.
Patxi Altuna Elizondo Jn., 15.940.929 zk. NArekin, DANENA KIROL ELKARTEAREN ordezkaria.

### AURREKARIAK

I. Villabona eta Zizurkilgo udalek neska txirrindularien lasterketa antolatu izan dute urtez urte. 2014. urte ezkeroztik "Neska txirrindularien Gipuzkoako bira" dena.

II. "Neska txirrindularien Gipuzkoako bira" Villabona eta Zizurkilgo udalek eta Zizurkilgo Danena Elkarteak antolatzen dute.

Aldeek bere gain duten ordezkaritzaren izenean, honako hitzarmen hau formalizatzen dute, beti ere ondorengoa ezarriz:

### KLAUSULAK

**Lehena**:
"Neska txirrindularien Gipuzkoako birak" hiru etapa ditu: Bergara, Tolosa eta Zizurkil-Villabona.

**Bigarrena**:
Zizurkil- Villabona arteko etapa bi herrietako udalek beraien kargu hartu dute, lasterketa egikaritzeko. Antolakuntza Zizurkilgo Danena Elkartearen esku geratu da.

**Hirugarrena**:
Zizurkil eta Villabonako udalek diru kopuru berdina jarriko dute lasterketa finantzatzeko, hain zuzen lasterketa bakoitzeko udal bakoitzak gehienez 2.500€ .

**Laugarrena**:
Lasterketaren antolakuntza Zizurkilgo Danena Elkartea-

## CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE VILLABONA Y ZIZURKIL Y DANENA KIROL ELKARTEA PARA LA ORGANIZACIÓN DE LA PRUEBA "NESKA TXIRRINDULARIEN GIPUZKOAKO BIRA"

En Villabona, a 20 de abril de 2015.

### REUNIDOS

D. Galder Azkue Eizmendi, con DNI nº 44.148.129-C, en calidad de Alcalde del AYUNTAMIENTO DE VILLABONA.
D. Jose María Luengo Zapirain, con DNI nº 72.434.065-G, en calidad de Alcalde del AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL.
D. Patxi Altuna Elizondo, con DNI nº 15.940.929, en calidad de representante del Club Deportivo DANENA KIROL ELKARTEA, con C.I.F. nº G-20102919.

### ANTECEDENTES

I. Los Ayuntamientos de Villabona y Zizurkil en colaboración con entidades deportivas han organizado durante varias ediciones la puebla ciclista "Neska txirrindularien lasterketa". A partir del año 2014 la prueba ha pasado a denominarse "Neska txirrindularien Gipuzkoako bira".

II. Los organizadores de la prueba "Neska txirrindularien Gipuzkoako bira" son los Ayuntamientos de Zizurkil y Villabona y la asociación deportiva "Danena Elkartea".

Las partes, en nombre de la representación que ostentan, formalizan el presente convenio sujeto a las siguientes estipulaciones:

### CLÁUSULAS

**Primera**:
La prueba "Neska txirrindularien Gipuzkoako bira" la componen tres etapas:
Bergara, Tolosa y Zizurkil-Villabona.

**Segunda**:
El ejercicio de la etapa Zizurkil-Villabona correrá a cargo de los Ayuntamientos de ambos municipios. La organización queda en manos de la asociación deportiva "Danena Elkartea".

**Tercera**:
Los Ayuntamientos de Villabona y Zizurkil financiarán la prueba, aportando cada uno ellos por cada prueba como máximo 2.500€.

**Cuarta**:
La organización de la prueba queda en manos de la aso-

ren esku geratu da. Adieraziriko elkarteak urtero laguntzaileak bilatzeko konpromisoa hartu du.

**Bosgarrena**:
Lasterketaren izen ofiziala NESKA TXIRRINDULARIEN GIPUZKOAKO BIRA izango da.

**Seigarrena**:
Zizurkil eta Villabonako Udalek eta Danena Elkartearen arteko lankidetza hitzarmenak lau urteko iraupena izango du, hau da 2015etik 2018ra bitarteko Neska txirrindularien Gipuzkoako birak antolatzeko.

**Zazpigarrena**:
Lasterketaren, irteera eta helmuga, Villabona eta Zizurkil, bi herrien artean txandakatuko dira urtez urte, honela izanik:

- 2015.urtean irteera Zizurkilgo Pasus plazatik egingo da eta helmuga Villabonako Malkar plazan kokatuko da.
- 2016.urtean irteera Villabonako Malkar plazatik egingo da eta helmuga Zizurkilgo Bulandegi Bidean kokatuko da.
- 2017. urtean irteera Zizurkilgo Pasus plazatik egingo da eta helmuga Villabonako Malkar plazan kokatuko da.
- 2018.urtean irteera Villabonako Malkar plazatik egingo da eta helmuga Zizurkilgo Bulandegi Bidean kokatuko da.

**Zortzigarrena**:
Zizurkil eta Villabonako udal bakoitzak lasterketa bakoitzeko gehienez 2.500,00 euroko ekarpena egingo du, Zizurkilgo Danena Elkartearen kontu korrontera lasterketaren data baino hamabost egun lehenago.

Eta bildutakoen adostasuna adieraziz, agiri honen jatorrizko hiru aleak sinatzen dituzte hasieran jasotako toki eta egunean.-

VILLABONAKO UDALA,

Izp.: Galder Azkue Eizmendi
NA.: 44.148.129 C

ciación deportiva "Danena Elkartea". Comprometiendose dicha asociación a encontrar patrocinadores para la prueba.

**Quinta**:
El nombre oficial de la prueba es "NESKA TXIRRINDULARIEN GIPUZKOAKO BIRA".

**Sexta**:
El convenio de colaboración entre los Ayuntameintos de Villabona y Zizurkil y "Danena Kirol Elkartea" para la organización de la prueba "NESKA TXIRRINDULARIEN GIPUZKOAKO BIRA" tendrá una vigencia de cuatro años, es decir para la organización de las pruebas comprendidas entre los años 2015-2018 ambos inclusive.

**Séptima**:
La salida y meta de la prueba se alternaran entre los dos municipios, quedando de la siguiente manera:

- Año 2015 salida desde la plaza Pasus de Zizurkil con llegada en la plaza Malkar de Villabona.
- Año 2016 salida desde la plaza Malkar de Villabona con llegada a Bulandegi Bidea.
- Año 2017 salida desde la plaza Pasus de Zizurkil con llegada en la plaza Malkar de Villabona.
- Año 2018 salida desde la plaza Malkar de Villabona con llegada a Bulandegi Bidea.

**Octava**:
Los Ayuntamientos de Villabona y Zizurkil realizarán una aportación como máximo de 2.500€ cada uno de ellos por cada prueba, a la cuenta bancaria de "Danena Elkartea" con quince días de antelación a la fecha de la prueba.

Y para que así conste, las distintas partes firman copia triplicada del documento en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.-

ZIZURKILGO UDALA,

Izp.: José Mª Luengo Zapirain
NA.: 72.434.065 G

DANENA K.E.,

Izp.: Patxi Altuna Elizondo
NA.: 15.940.929

# II ERANSKINA – ANEXO II

**ZUBIMUSU IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEARI BULANDEGI BIDEA, 9HELBIDEAN ONDARE-LURSAIL BAT ALOKATZEKO KONTRATUA**

Zizurkilen, 2015eko maiatzaren xxxan.

**BILDURIK**

Alde batetik: **Jose Maria Luengo Zapirain jauna**, adinez nagusia, Zizurkilgo biztanlea eta 72434065-G NAN zenbakiduna.

Eta, beste aldetik: **Nerea Zumeaga Zumeta andrea**, adinez nagusia, Villabonako biztanlea eta 72453852-B NAN zenbakiduna.

**ESKU HARTU DUTE**

Jose Maria Luengo Zapirain jaunakZizurkilgo Udaleko alkate-udalburu gisa, dokumentu hausinatzeko behar besteko ahalmena duena, 2015eko maiatzaren 20ko osoko bilkurako erabakiaren bidez. Erabaki horren kopia ziurtatua ageri da **I. Eranskinean**.

Nerea Zumeaga Zumeta andreakZubimusu Ikastola Kooperatiba Elkartearen zuzendari-gerente gisa, dokumentu hau sinatzeko behar besteko ahalmena duena, Pedro Elosegui Bergareche Tolosako notario jaunaren aurrean 2014ko apirilaren 11n sinatutako ahalordea emateko eskrituraren bidez (bere protokoloko 311 zenbakiduna). Eskrituraren kopia ageri da **II. Eranskinean**.

Bi aldeek legezko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri **ALOKAIRU-KONTRATUA** sinatzeko, eta honako aurrekari hauek kontuan hartu dituzte:

**AURREKARIAK**

**Lehenengoa.-** Zizurkilgo Udalaren jabetzakoa da erregistroan honako deskribapen hau duen lursaila:

NEKAZARITZAKOA.- Zizurkilgo eskumenean

**CONTRATO DE ARRENDAMIENTO DE FINCA PATRIMONIAL EN BULANDEGI BIDEA, 9 EN FAVOR DE ZUBIMUSU IKASTOLAKOOPERATIVA ELKARTEA**

En Zizurkil, a xxx de Mayo de 2.015

**REUNIDOS**

De una parte: **Don José María Luengo Zapirain**, mayor de edad, vecino de Zizurkil y con DNI nº 72434065-G.

Y de la otra: **Doña Nerea Zumeaga Zumeta**, mayor de edad, vecina de Villabona y con DNI nº 72453852-B.

**INTERVIENEN**

Don Jose María Luengo Zapirain, en su condición de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zizurkil, facultado para el otorgamiento del presente documento en virtud de acuerdo plenario tomado con fecha 20 de Mayo de 2.015, cuya copia Certificada se adjunta como **Anexo I**.

Doña Nerea Zumeaga Zumeta, en su condición de Directora-Gerente de "Zubimusu Ikastola Kooperatiba Elkartea", facultada para la suscripción del presente documento en virtud de la escritura de apoderamiento suscrita ante el Notario de Tolosa Don Pedro Elosegui Bergareche el 11 de abril de 2.014 (nº 311 de su protocolo), cuya copia se adjunta como **Anexo II**.

Las partes, según intervienen, se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para la firma del presente **CONTRATO DE ARRENDAMIENTO**, llevándolo a cabo de conformidad con los siguientes

**ANTECEDENTES**

**Primero.-** El Ayuntamiento de Zizurkil es propietario de una finca de la siguiente descripción registral:

RUSTICA.- Terreno destinado a la construcción

eskolak, lorategiak eta jolaserako eremuak eraikitzeko hogei areako lursaila. Honako hauek ditu mugakide: iparraldetik, Fermín Aramburuen lursailak; ekialdetik, Gabricho baserriko lursailak etagurdibidea; hegoaldetik, Adunara doan bidea; eta mendebaldetik, Portu paper-fabrikatik bereizitako lursaila.

Inskripzioa: 486. liburukia, 15. liburua, 249. folioa, 400 zenbakidun lursaila, Tolosako 1 zenbakidun Jabetza Erregistroko 1. inskripzioa.

Lursaila ondare-lursaila da, eta Bulandegi bidea 9 helbidean kokatuta dago (Pagamuñoauzoan).

**Bigarrena.-** Lehenengo aurrekarian deskribatutako lursaileko zati nagusian 1933an eraikitako eskola bat dago, eta 1982. urteaz geroztik Jesusen Bihotza ikastola erabiltzen ari da. Gaur egun eta hemendik aurrera Zubimusu Ikastola Kooperatiba Elkartea du izena aipatutako ikastolak, eta 2 urtetik 8 urtera arteko umeei eskolak emateko erabiltzen du aipatutako eraikina.

Ikastolak 1965eko uztailetik du lotura Zizurkilekin; izan ere, guraso-talde baten bultzadaz,SANTIO IKASTOLA sortu zen garai hartan. Sorreratik bertatik, ikastola berria ikastolen mugimenduari lotuta egon zen, eta, 1969an, Ikastolen Gipuzkoako Federazioko kide bihurtu zen. Hasierako urteetan, hainbat eraikin erabili zituen (Zizurkilgo Benta Txuriko lokala, Zizurkilgo Arantzazuko Amako parrokiaren lokala, Villabonako Jesusen Bihotza parrokiaren lokala).

1972-73 ikasturtean,Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko hezkuntza-legea ezarri zenean, hiru ikastolak egin zuten bat: Santio Ikastolak, Sagrado Corazón de Jesús Ikastetxeaketa San José Ikastetxeak. Bat-egite horretatik sortu zen Jesusen Bihotza Ikastola. Villabonako parrokiak hartu zuen bere gain entitate sortu berriaren titulartasuna, eta Villabonako Kale Berriko eraikina erabiltzen jarraitu zuen.

1975-76 urteetan, eraikin berri bat egin zen Villabonako Txermin auzoan, eta ikasle gazteak

de escuelas, jardines y campos de recreo en jurisdicción de Zizurkil de veinte áreas. Linda: Norte, con terrenos de Fermín Aramburu; Este, con terrenos de Caserío Gabricho y camino carretil; Sur, con camino que se dirige a Aduna; y Oeste, terreno que se segrega de la "Papelera Portu".

Inscripción: Al Tomo 486, Libro 15, folio 249, Finca nº 400, inscripción 1ª, del Registro de la Propiedad nº 1 de Tolosa.

La finca tiene carácter patrimonial y está ubicada en Bulandegi bidea, 9 (Pagamuño auzoa).

**Segundo.-** Que sobre la parte principal de la finca descrita en el antecedente previo se levanta un edificio escolar construido en 1.933 que desde el año 1.982 viene siendo ocupado por la Ikastola Jesusen Bihotza, actualmente y en adelante "Zubimusu Ikastola, Koopertiva Elkartea", con destino a la educación de niños de 2 a 8 años.

La vinculación de la ikastola con el municipio de Zizurkil se remonta al mes de julio de 1.965 en el que por impulso de un grupo de padres nació SANTIO IKASTOLA. Desde su creación, la nueva Ikastola se unió al movimiento de ikastolas y en 1969 se hizo miembro de la Federación Guipuzcoana de Ikastolas. Utilizó diferentes edificios en los primeros años de existencia (el local de Benta Txuri en Zizurkil, el local de la parroquia Arantzazuko Ama en Zizurkil, el local de la parroquia Jesusen Bihotza de Villabona)

Cuando en el curso de 1972-73 se estableció la ley de educación OHO, se agruparon tres ikastolas (Santio Ikastola, Sagrado Corazón de Jesús Ikastetxea y San José Ikastetxea). A consecuencia de esta unión surgió Jesusen Bihotza Ikastola. La parroquia de Villabona asumió la titularidad de la nueva entidad y siguió haciendo uso del edificio en la Kale Berria de Villabona.

En 1975-76 en el barrio de Txermin en Villabona, se construyó un edificio nuevo y los

bertara joan ziren.

estudiantes jóvenes se instalaron allí.

Bulandegi 9 helbidean kokatuta zegoen garai bateko eskola nazionalen eraikina, Zizurkilgo Udalaren jabetzakoa, eta Jesusen Bihotza ikastola erabiltzen hasi zen 1982 ikasturtean, ordura arte eraikin hura erabili zuen eskola publikoa Pagamuño auzora lekualdatu zenean.

El edificio de las antiguas escuelas nacionales perteneciente al Ayuntamiento de Zizurkil en Bulandegi 9, empezó a usarse por la ikastola Jesusen Bihotza en el curso de 1982 cuando la escuela pública que lo venía utilizando hasta entonces se trasladó a su actual ubicación en Pagamuno Auzoa.

**Hirugarrena.-** Solairu bakarreko eraikinak ez du egitura-arazorik, baina, zaharkituta dagoenez, eta estalkia (fibrozementuzko plaka izurtukoa) eta kanpoko arotzeria (zurezkoa, eta isolamendu termiko eta akustikorik gabea) zer egoeratan dauden ikusirik, ezinbestekoa da osorik eraberritzea, erosotasuna bermatzeko eta, batez ere, beharrezko segurtasun-neurriak betetzeko, ezinbestekoa horren adin txikiko haurren heziketa behar bezala gauzatzeko.

**Tercero.-** Aunque el edificio, de una sola planta, no presenta problemas estructurales, la antigüedad y estado de su cubierta (de placas onduladas de fibrocemento) y de su carpintería exterior (de madera y sin aislamiento térmico ni acústico) requieren actualmente de una reforma integral en orden a garantizar las condiciones de confort y, sobre todo, seguridad necesarias para el buen desarrollo de una actividad docente dirigida a niños de tan corta edad.

Ikastolak gutxi gorabehera 1.400 m2-ko azalera du. Bertan daude ikastolaren eraikina, ondoko jolastokia eta Bulandegi bidea aldera geratzen den lursail-zati bat, baratze txiki gisa erabiltzen dena. Ingurune guztia itxita eta hesiz inguratuta dauka. Kontratutik kanpo geratzen den gainerako lursaila da ikastolatik mendebaldera geratzen den hiruki txiki bat, gaur egun berdegunea dena, eta hegoalderantz geratzen den lursail-zati bat, hesitutako zatia eta Bulandegi Bidea (GI-3610)banantzen dituena.

La ikastola ocupa una superficie de unos 1.400 m2 aproximadamente que comprenden el edificio, su patio adyacente y una franja de terreno hacia Bulandegi bidea que se utiliza como pequeño huerto educativo, estando este conjunto cerrado y vallado en todo su perímetro. El resto de la finca, que no forma parte del objeto de contrato, lo constituyen un pequeño triángulo destinado actualmente a zona verde en su lindero Oeste y la franja de terreno que, hacia el Sur, separa la zona vallada de Bulandegi Bidea (GI-3610).

**III. Eranskinean** ageri da erregistroko lursailean dauden guneak identifikatzeko planoa.

Se acompaña como **Anexo III** un plano identificativo de los espacios que conforman la finca registral.

**Laugarrena.-** Jesusen Bihotza ikastola kooperatiba-sozietate bihurtu da, Zubimusu Ikastola Kooperatiba Elkartea izenarekin eta 2014ko maiatzaren 12an inskribatu da Eusko Jaurlaritzaren Kooperatiben Erregistroan, **IV. Eranskinean** ageri denez.

**Cuarto.-** Que la Ikastola Jesusen Bihotza se ha constituido en Sociedad Cooperativa bajo la denominación de "Zubimusu Ikastola, Koopertiva Elkartea", habiéndose inscrito en el Registro de Cooperativas del Gobierno Vasco con fecha 12 de mayo de 2.014, tal y como consta en el **Anexo IV**.

Aldaketa juridiko horren ondorioz, kooperatiba berriak herri-onurako kooperatibaren izendapena eskatzeko asmo sendoa du, Herri-onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzen

Como consecuencia de esta transformación jurídica, la nueva Cooperativa, acogiéndose a lo previsto por el Decreto 64/1999, de 2 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento sobre procedimientos y requisitos relativos a las

duen otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuan aurreikusitakoa kontuan hartuz, eta aipatutako Dekretuko 5. c) artikuluak eskatutako bi urteko epea igaro ostean.

2014/2015 ikasturtean, 2 urtetik 8 urtera arteko 31 ikaslek eman dute izena Zizurkilgo ikastetxean, eta hiru gelatan banatuta daude.

**Bosgarrena.-** Gaur egunera arte, Zubimusu Ikastola Kooperatiba Elkarteak udal-instalazioak erabili ditu, horretarako titulu formalik eduki gabe, eta bi aldeei interesatzen zaie egoera erregularizatzea, dokumentu bat sinatuta. Salbuespenezko egoera batean gaudela kontuan harturik, eta ikastolak herri-onurako izendapena eskuratu bitartean, **ALOKAIRU-KONTRATU**honen bidez egin beharko da. Kontratu honek honako xedapen hauek ditu bere baitan:

### XEDAPENAK

**1.- KONTRATUAREN XEDEA.**

Alokairu-kontratu honen xedea da **III. Eranskineko** planoan identifikatutako 1.400 m2-ko lursaila alokatzea; hau da, lehenengo aurrekarian deskribatutako lursaila.Lursail hori hezkuntza-ekipamendurako eta dagozkion erabilera osagarrietarako (Hiri-Antolamenduko Plan Orokorreko hirigintza-arau orokorretako 96.4.3. art.) erabiltzen jarraituko du, titulartasun pribatuko erregimenean.

Eraikinak 45.028,79 euroko balioa du katastroan, 2015eko ekitaldirako.

**2.- KONTRATUAREN IZAERA.**

Alokairu-kontratu hau kontratu pribatu gisa hartuko da.

**3.- ARAUBIDE JURIDIKOA.**

1. Kontratuaren prestaketa eta esleipena Udalari

sociedades cooperativas de utilidad pública, tiene firme voluntad, una vez transcurra el plazo de dos años desde su constitución que requiere el artículo 5. c) del referido Decreto, de solicitar su declaración de utilidad pública.

En el curso escolar 2014/2015, el número total de alumnos matriculados en el centro de Zizurkil es de 31 alumnos de 2 a 8 años, distribuidos en tres aulas.

**Quinto.-** Hasta la fecha, la ocupación de las instalaciones municipales por parte de "Zubimusu Ikastola, Koopertiva Elkartea" se ha venido produciendo sin título formal habilitante alguno, siendo interés de las partes regularizar esta situación a través de la suscripción de un documento que, en atención a las causas excepcionales que concurren y en tanto la Ikastola no obtenga el reconocimiento institucional de su utilidad pública, habrá de formalizarse a través del presente **CONTRATO DE ARRENDAMIENTO**, que se rige de conformidad con las siguientes:

### ESTIPULACIONES

**1.- OBJETO DEL CONTRATO.**

El objeto del presente contrato de arrendamiento lo constituye la parcela de 1.400 m2 identificada en el plano que es **Anexo III** y que conforma el principal de la finca descrita en el Antecedente Primero.-, para seguir destinándola al uso de equipamiento educativo-docente y sus correspondientes usos auxiliares (art. 96.4.3. de las NNUU Generales del PGOU) en régimen de titularidad privada.

El edificio dotacional tiene un valor catastral asignado de 45.028,79 euros para el ejercicio 2.015

**2.- NATURALEZA DEL CONTRATO.**

Este contrato de arrendamiento tiene la consideración de contrato privado.

**3.- RÉGIMEN JURÍDICO.**

1. La preparación y adjudicación del contrato, se

ezar dakiokeen ondare-legediaren arabera arautuko dira; hau da, Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Oinarrizko Legea, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko 1372/1986 Errege Dekretua eta, Dekretu horretako xedapenek bidalita, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duena, nahiz eta Dekretu horretako 4,p) artikuluak bere eremutik kanpo utzi.

regirán por la legislación patrimonial aplicable al Ayuntamiento, la legislación básica de la Ley 33/2003 de Patrimonio de las Administraciones Públicas, LPAP, por el RD 1372/1986 Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, y por remisión, por el RD Legislativo 3/2011, TRLCSP, aunque el art. 4,p) lo excluya de su ámbito.

Kasu honetan badago behar beste arrazoi alokairu-kontratua Ikastolari zuzenean esleitzea justifikatzeko: alde batetik,ondasunaren izaera (sorreratik bertatik hezkuntza-erabilerarako eraikitako lursaila baita) eta, beste aldetik, eragiketaren berezitasuna (lursail hori erabiltzen duen erakundeak 33 urte baino gehiago daramatza bertan, etenik gabe, eta hezkuntza-jarduerarako erabiltzen du).

En el presente caso concurren razones suficientes y en concreto la peculiaridad del bien (concebido desde su origen como una parcela edificada de uso educacional) y la singularidad de la operación (la institución que lo ocupa lo viene haciendo desde hace más de 33 años y con carácter ininterrumpido destinándolo a actividades docentes), como para justificar su adjudicación directa en favor de la Ikastola.

2. Kontratuaren ondorioak eta iraungipena honako bi lege hauek arautuko dituzte: Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legea eta azaroaren 24ko Hiri Errentamenduen 29/1994 Legea.

2. Los efectos y extinción del contrato se regirán por la Ley 33/2003, LPAP, y por la Ley 29/1994 de 24 de noviembre de Arrendamientos Urbanos, LAU.

**4.- PREZIOA.**

**4.- PRECIO.**

Toki Erakundeen Ondasunei buruzko 1372/1986Errege Dekretuko 92. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta kontuan hartuta 2015eko ekitaldi fiskalerako eraikinaren katastroko balioa (45.028,79 euro), **alokairuaren urteko prezioa bi mila zazpiehun eta bat euro eta hirurogeita hamahiru zentimokoa izango da(2.701,73)**, eta aurrez ordainduko du maizterrak dagokion urteko lehenengo 15 egunetan, diru-sarrera edo transferentzia eginik Udalaren izenean irekitako Kutxabankeko kontu korronte honetan: 2095 5072 61 1060014592 zenbakia dueña.

De conformidad con lo previsto por el artículo 92 del RD 1372/1986, del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, y tomando en consideración la valoración catastral del edificio para el ejercicio fiscal de 2.015 (45.028,79 euros), **el precio del arrendamiento se fija en un canon anual de dos mil setecientos un euros con setenta y tres céntimos (2.701,73)**, que será abonado anticipadamente por el arrendatario dentro de los 15 primeros días del año a que corresponda mediante ingreso o transferencia en la c/c de Kutxabank nº 2095 5072 61 1060014592, abierta a nombre del Ayuntamiento.

Alokairuaren kanonaren zenbatekoa urtero aztertuko da, KPIren edo etorkizunean ordezkatuko duen erreferentziako indizearen aldaketetara egokitzeko, kanona eguneratu aurreko hamabi hilabeteetan.

El importe del canon será revisado anualmente para adaptarlo a la variación que experimente el IPC, o índice de referencia que en el futuro lo sustituya, en los doce meses anteriores a la actualización.

**5.- IRAUPENA.**

**Kontratu honek hogeita hamar (30) urteko iraupena izango du**, baina maizterrak lehenago eten ahal izango du, inolako zigorrik gabe, 6.A.1 xedapenean agindutako eraikinaren hobekuntza-lanak egin ostean. Aurretik Udala jakinaren gainean jarri beharko du, kontratua eten baino hiru hilabete lehenagotik, gutxienez.

Kontratua sinatzen denetik 30 urte igarotzean, luzatu ahal izango da, bi urteko tarteetarako, bi aldeak adostasunera iritsiz gero. Hamar (10) urtez jokatu ahal izango da horrela, gehienez.

Nolanahi ere, berrogei (40) urte igarotzean, kontratu hau automatikoki iraungita geratuko da, aurretik jakinarazi behar izan gabe.

**6.- MAIZTERRAREN BETEBEHARRAK.**

Maizterraren betebeharrak honako hauek dira:

**A) Berariazkoak:**

